

"PRINCIPE DE VIANA"



SUPLEMENTO EN VASCUENCE
DIPUTACION FORAL DE NAVARRA

Coordinador para el Suplemento
en Euskara
MARCELINO GARDE

XVII'gn. urtea
151'gn. zenbakia

Iruña -1983- Martx. Jorr.

Fran. conc.
N.º clas. 34/60

Director en func. de la Inst.
Príncipe de Viana
J. JOSE GRAU

Joana dugu negua. Iritxi zaigu udaberria. Neguarekin batean uxatua da illuntasuna, urtuak dira izotzak, baretuak ekaitzak, garaitua eriotza.

Piztu zaigu bizia mendi, zelai, ibarretan. Loretu dira barrutiak, eta ostoz ornitu zugaitzak. Gora dator garia alorretan. Agiri da zeruetan urdiña. Poztu da mundua. Suzpertzua dira egaztiak eta izaki guztiak. BERPIZTU ZAIGU MUNDUAN BIZIA. Kantari dugu non-nai izadia, iritxi bait da udaberria!

Izadian, urtero-urtero ernetzen zaigu udaberria. Urtero-urtero alaitzen du lurak aurpegia, utsik egin gabe sumatzen du bizi berriaren poza bere errailetan.

Ez dira ain errez aldatzen giza-kumeen biotzak, gogorak bait dira; arkaitzak baiño gogorragoa, gizonaren biotza. Aralar'ko Mallonetan, aitzen zirrikuetan sortu da belar ezea, jaio dira loreak; gozotasuna dario lurak bazterrik ido-

rrenetatik ere... Ez da, ordea, gizonaren biotzik aldatu.

Arras gogortu ote zaigu gizakumeoi gogoa? Bai; badirudi udaberri ontan, pozaren mendean ez, baiña gorrotaren mendean daudela gizakumeak munduan. Indarkeria edonun, gorrotoa bazter guztietan; eriotza non-nai nagusi.

Izadia pozetan dagoen udaberriko aro ontan, negarrez dago gizadia milla lekutan. Odola dario Amerika'k, euskaldunok ain gurea dugun Amerika'k! Euskaldunen bigarren aberria izan da beti Amerika. Orregatik maite dugu Ame-

rika, eta min ematen digu, Amerika ori -Guatemala'n, El Salvador'en, eta non ez?- odoletan ikusteak. Odoleta Itali'n ere; eta Frantzi'n; eta Irlanda'n; eta emen, gure Euskalerrri ontan...

Eriotzak ez du berekin negarra besterik ekartzen. Eriotzak ez dakar, bein ere, gauza onik: ez dakar pozik; ez dakar bizitzarik; ez dakar zorionik. Eriotzaren bidez ez diteke ezer konpondu!

Gure fedea, beintzat, ez da eriotzean tinkotzen; bizian oñarritzen da, BERPIZKUNDE BATEAN...

Udaberrian negarra



«...udaberriak berritzen ditu landare danen bizitzak...»

(Leitzako «Franki» baserria. A. ZABALA argazkia)

Gaur gizaldean, zurekin amets egin det, Udaberria;
zure zai dago kale txuloa,
zure zai da baserria.
Zu zera illunen argitzallea,
gaixuen sendagarria,
frutu berriak ugaritzeko
Jaun Zerukoak jarria.

Udaberriko egun alaiak
iritxen zaizkigunean,
eguzki-printzak leio-kristalak
ikuitzen dizkigunean,
esnatzen gera txorien kantak
entzuten ditugunean.
Ura atsegin zoragarria
gure biotz bigunean!

Negu illunak eziña eta
tristura ugaritu du;
urtez aurrera bagoaz eta
orrek bildurtzen gaitu gu.
Udaberria, zure laguntzak
bearrezkoak ditugu;
etorri, beraz, goxo-goxo ta
ongi artuko zaitugu.

LASARTE

NAPARROA'N PETROLEORIK BAI OTE?

Orain urtebete ta geiago delarik, Iruña'tik urbil asi ziren lurra zulutzen. Bai, lurrean sakonki ta oso beeruntz zuloa egiten. Zertarako? Arrolioa edo petrolio-a aurkitzeko itxaropenetan. Ikerketak egin ondoren, Naparroa'ko lurpean badagoela esaten dute, baiña zulatzer asten direnean, ez dute aurkitzen.



Naparroa'ren larrua leku askotan zulatuz gero, tresna alimale ori beste aldera.

Argazkian ageri den tresneriaz baliaturik, 4.726 metro bidean egin dute zuloa lurrean beera, baiña alperrik.

Ez da oraingo kontuxua bakarrik: 1923'an ere egin zuten orrelako zulketarik Gastiain'en, baiña alperrik. Urrena 1953'an zulatu zuten Marzilla aldean, 4.000 metro arte; beti alperrik.

Zulorik sakonena, Urbasa'n egin zuten, 5.900 metro arte zulatuz. Baiña ez arroliorik eta ez gasik ez dute airkitu.

Ikerketek diotenez, Naparroa'ko lurpeak itxura guztiak ditu, baiña billa joaten direnean, ez dute aurkitzen. Ea luzaro baiño leen aurkitzen duten, Euskalerrri erori au jaso aal izateko.

COLZA-OLIOZ KUTXATURIK

339

LAGUN IL DA

Kutsadura edo delako gaitz ori delabide, asko il dira penintsulan barna. Eta oien guztien artean, Catalino Martin Vieco deitua. Goian bedi, eta goian bitez beste guztiak ere.

Baiña zergatik ipiñi dugun ori? Ain zuzen eta juxtu ere, 339'gna. delako. Euskalerrria'n asko dira 339 zenbaki ori oso gogoan dutenak. Zenbaki gogoangarria euskal-borrokaren barnean.

«OSSIAN SARIA» MITXELENA IZKUNTZALARIARI

Europa'ko ondasun diren izkuntzeen serbitzu ta laguntzan lanik sendoen eta sakonena egin dutenei ematen dieté «Ossian» izeneko saria.

Izkuntzalari ikasia dugu Mitxelena jauna. Onen langintza garrantzizkotzat artu dute Alemania aldetik eta ori delabide opa diote saria.

Gasteiz'en egin zuten sari-ematea, ospakizun eta mintzaldien barnean. An ziren, besteak beste, Alemani'tik etorritako ordezkaria, Garaikoetxea Lendakaria, Etxenike Eziera Sailleko Aoldakaria, Euskal Legegintza-Biltzarreko Pujana Lendakaria, e.a.

Txalo jotzen diogu Mitxelena jaunari, egiñik dituen lanak direla-ta. Gaztele-raz idazten duen ainbat idatz dezala euskeraz ere, eskatuko genioke.

BEAR ZEN ERABAKIA

Oraintxe, Jorraill'eko 26'an, Diputazioak artu berria duen erabakia bearbearrezkoa zen euskeraz argitaratzen den «PRINCIPE DE VIANA» aldizkari au berriro argitaratzeko.

Aukera eman diote Lizarra'ko «Lizarr» izeneko Irarkolari; lantegia ez dago Iruña'rako Bidean, Tafaila'ra-koan baizik. Beste aldaketa gure zorro bete-betean.

Amar zenbaki egiñen dira aurten, 8.000 ale aldi bakoitzean, eta Jainkoa lagun (baita Etxeko laguntzailekin ere) garaiez banatuko dira euskaldunen artean.

Euskerazaintza

Gure aldizkari onek ez du erarik izan orain arte, Euskerazaintza zer den jakiteko. Beste itzez esateko, «Euskeraren Erri-Akademia» da, erriz-erri gure euskaldunen aontan bizi den euskera aztertzen, indartzen, zabaltzen ta bizkortzen edo azkartzen gogotsu lan egiteko sortua. Ona emen Epaill'eko batzarraren laburpena:

EUSKERAZAINTZA'k Eibar'en egin du Epailla'ren 26'an bere illeroko Batzarra, Zatarain'dar Anbrosi jaunaren lendakaritza-pean.

Azken-batzarreko ikerketak edo akademi-lanak aztertzen eta sakontzen jarraituz gaiñera, Batzorde bat izendatu du, jasotako iker-lanen baterapena ta gaiñerako sakonketak egin ditzan. Batzorde edo lan-talde ontarako izendatuak, Akesolo, Arostegi, Arrinda, Gaztañaga ta Zatarain jaunak dira.

Gai berezi bat aztertzeari ekin dio Euskerazaintza'k, au da ERTZAINA itza aztertzeari alegia. Izan ere, erakundea, lanbidea, bakoitza ta guztien kopurua adierazteko, ERTZAINA itz bakarra erabiltzen dute ta ori oker dago.

Itz ortatik bide artuta, urrregorako atzizki auen erabilpena ta erabilkera sakonki aztertzea erabaki du: -GO, -TZA, -DI ta -KETA.

Osoko euskerazain izan zen Oñatibia'tar Jon (G.B.) Paris'ko Sorbona Unibersidadean Irakasle edo «Doktor» izendatu dute. Ori ta beste lan aundiak direla-bide, zor zaion omenaldia egitea erabaki du Euskerazaintza'k.

«Latxaga» donostiarra ere osoko euskerazain da ta jaun onek ere Sorbona'n aurkeztu ta aldeztu du iker-lan berri bat, «Doktoradutza» lortuz. Ikerketa ontarako iturri ta oiñarrizat, Zipitria'tar Elbire'ren asmaketak erabilli ditu ain zuzen ere, New York aldean dabillen «Latxaga»k. Zorionak bidaltzea erabaki du Euskeraren Erri-Akademia'k.

Bestalde, «Andereñoen Andereño» izan zen emakume argi ta irakasle arrigarriari omenaldi egoki bat eratzeko erabakia ere artu du Batzar berean.

Azkenik, Olabeaga'tar Iñaki zenaren ordeztako, -eta lekurako- Zubiri'tar Iñaki idazle jori ta olerkari trebea artu Euskerazaintza'k, aurrerakoan osoko euskerazain izateko.

URTE OROTAN BEZALA XABIER ALDERAKO IBILLALDIA


Urtero bezala Martxo «ello» ta gogorra etortzerakoan, Xabier'ko bidea artzen dute nafartarrek.

Aurten, dudarik gabe, nafartarren martxan eredia izan dugu Aita Santua, aren bisita ain berri izan bait da.

Xabier'era joaten dira ibiltariak gure Sainduarekin egotera, Aitasantuaren ereduari jarraituz, gure Apezpikuari laguntzera, bera guri laguntzen zaigu bezala.

Oso jende gaztea aurten? Baiñan, ori bai, oso ongi prestatua. Iduri du aurtengo neskanegunean geiago joan direla. Eta aaztu bear ez dena ere, Bederatziurren egun berezian, 200 apez bildu ziren Xabier'en Zirarda'tar Joseba Mirena Goi-Apezpikuaren inguruan.

Xabier'ko Gaztelua, urtez-urte, Nafartarren erlijioiko sutondoa.



Martxoko egun otzetan bezala, beti sutondo beroena izan bedi napharrentzat Xabier'ko Gaztelua.

IRUÑA'N MIKEL SANTUAREN ASTEA

Azpirotz erriko Apeza, D. Miguel Azpirotz, orain ia berrogei urte San Migel'ekin erriz-erri dabilfela.

Iruña'ko azkeneko bisitan, albistari batekin mintzatu dena, euskeratu dugu interesgarria bait da.

«San Migel'en debozioak ez du folklorismorik»: errezatu, otoiztatu, eta Eukaristia ospatzen da, eta an Jainkoaren itza ereiten da.

«Egia da Aralar'era, nafartar baiño

gipuzkoar geiago joaten direla, emengo batzuk asarre arte ere...; baiñan, ez al dira nafartar asko Zarautz'era joaten?

«Nere ustetan, Iruña'n aste ontan 80.000 pertsonak agurtu dute San Migel. Badira pentsatzen dutenak debozio au gutxitzen ari dela; gertatzen dena da, errietan jende gutxiago dagoela, eta lantegietan daudenak ez daitezke atera, Saindua agurtzera.

«Errietako bisitak uste dut XIII'edo XIV'gn. mendean asi zirela. Kantuak bi eratara egiten dute, bai erderaz, bai euskeraz; Etulain'en, naiz euskera galdtu, beti euskeraz abesten dute.

ZARTZAROAREN ABERASTASUNA

Iruña'n batzar berezi batzuk izan dira oraintsu, Zartzaroa ta zaarren arazoak dirala-ta. Beste deitura batez adierazteko, orain esaten duten bezala: **Irugarren adiñekoen** arazoak, alegia.

Eta arazorik larriena, zaarren bakardadea omen da. Baiña bere kidekoen artean ere bakarrik aurkitzen omen du bere burua. Zergatik? Maitasuna bear duelako ta ori ez du aurkitzen kidekoan artean: bakar-bakarrik etxean aurki lezake benetako maitasuna.

Etxean, bai, eta bereziki, bere seme-alabengan aurkitzen du maitasun-giroa. Sendiak eta gizarteak ez al diote zaarri benetan zor aundia, zaarrek bere bizitzan eman duen guztia ordaindu bitartean?

Zartzaroon, jakiñekoa izaten da baretasuna edo patxada, bai gazzak ikustekoan eta bai epaitzekoan, eta baita erabakitzeoan ere: gaztetan izaten ez dena. Iñor konturatzeoan, zaarrek konturatzen dira, zoriona non dagoen: ez dagoela guztia beretzat nai izaten, baizik-eta besteei laguntzen eta daukanetik besteei ematean dagoela.


Aiton-amonak, askotan, ezitzaillerik onenak gertatzen dira beren billobentzat. Zergatik? Beren seme-alaben eziketari izandako akatsak ezagutu ondoren, billoben eziketari zuzenago jokatzeko dute-lako.

Jakinduriz eta gauza asko jakitez, liburuak gauza geiago daukate; baiña beren gizatasunez eta zentzu onez, liburuak baiño askoz aberatsagoak dira gure zaarrek. Ziur egon baietz.

Galdera bat: Zaar-etxeak zertarako dira? Etxekorik edo senditariarik ez dutenentzat: onelakoentzat dira bereziki. Seme-alabak dituztenentzat, zer? Onela erantzun bear: sendi bat sortu ta bere bizitzan girotu duenak, eskubide osoa du gero, bere azkena sendigiroan egiteko. Etxe berean eta sendi beraren barnean, ederki bizi daitezke iru belaunaldiak: aiton-amonak, auen seme-alaba edo dir-elakoak, eta billobak. Gaurko etxe-bizitza txiki kaxkarretan kabitu ezker beintzat: ortantxe dago eragozpena edo muga.

Aiton-amonen bakardadea... maitasunik eza... eta gazteei eman dezaieketen giza-maillako aberastasuna...

BAGÜES



On Migel Azpirotz, Azpirotz erriko Erretora, ea 40 urte direla Aingeruaren Iruia erriz-erri daramana.

AEZKOA TA ZISA ANAITASUNEAN

Aezkoa ta Zisa'ko abereak muga bi alderdietako bazkak jan ditzaten, oituraren gisa, agiria izenpetu zuten Apirilla'ren 25'ean.

Nafarroa'ko Diputazio'ko Jauregian bildu ziren Artza Lendakari Jauna ta Zankotza'ko Merindadekoa den Bueno Asin Diputadua, Orbaizeta ta Orbara'ko Alkateak eta beste aldekoak Ollarburu, Uhart, Biscaichupy, Cabrol eta Inchauspe Jaun-andreak.

Oraingo, 250 abelgorri buru ibiliko dira ta 5.000 ardi alde bakoitze-koak. Gaiñera, bestaldeko nafartarrek ayeztarrei 130.000 pzta. ordainduko dizkiete.



Beste denboretako jantziak; oraingo afe-
rak; betiko anaitasuna.

Baiñan oberena izan da bi aldetako nafartarrak bilduak ikustea nafartar guzien Etxe Aundi ontan. Ala zion Inchauspe Jaunak: «Anitz pozik gaude arto-emanak izatean Ayetzko lagunekin». Artza Leendakariak zionez «ona da bi alderdiaren batasuna ta baieztaztea, batez ere erri batzuek mintzaera ta oitura berdiñak dituztenean, eta Ayetzkoa ta Zisa -mendetan zear- Nafartar Erresuma berekoak ziren».

«Kili-Kili» aldizkaria kalean

Luzaro isilik egonez gero, berriz kaleratu da «Kili-kili»; berriz ere gure eskuetan. Eta, batez ere, berriz euskal baserrietan, euskaldun umeen eskuetan! Aunitz poztu gaitu «Kili-kili»ren agerraldi berri onek inportantzirik aundiena duekakoz.

Euskaldun ume ta gaztetxoan aldizkari maitagarria dugu «Kili-kili»; baiñan, ez da aldizkaria bakarrik: ori ta geiago da: **umeen bidez Euskera salbatzeko Erakunde egokia, bearrezkoena.**

«Kili-kili»ren sortzaillea den Joxe Antonio Retolaza'k argi ikusi ta garbi esan du nola aterako da Euskera dagoen il-zoriatik:

«Etxeko euskera, euskera bizi ori zuzendu, orraztu, landu, aberastu, sendotu, indartu... alfabetatu eta gauza egin non-nai agertzeko. Norberarena lantzea, erreza da; norberarena landuz gero, non-naiko euskera landua ulertzea erreza da».

Retolaza'ren uste berekoak gera, ta «biotzean min dugu» ainbeste itsu ta gor Euskera gaixoaren bidetan gidari izatekoan. Esan dezagun, beingo, ez daudela Madril'en bakarrik Euskera'ren etsairik kaltegarrienak.

GARDE'TAR M.

Se autoriza la copia para la investigación.
© GOBIERNO DE NAVARRA

«IRUÑA» IZENARI BURUZ

Nondik atera ote dituzte «IRUINA» ta «IRUINEA»? Zergatik asi ote dira orain gure IRUÑA, antziñako izen jatorra aldatzen? Ori jakin nai nuke nik. Seguru aski, ez duela niork garbiro esanen.

Baiña garbi dago gauza bat: gure apitxien apitxiek edo arbasoek aspalditik IRUÑA erabilli zuten. Eta guk gaurko euskaldun zaarrok ere IRUÑA erraten dugu, eta... erranen ere dugu.

Forudun Diputazioko «Príncipe de Viana» erakundeak erabaki bear lukela uste dut, bein batez, gure iriburuaren izena nola den, eta erabaki ori bidali Eusko Jaurlaritza'ri, Euskaltzaindia'ri, Euskera-zaintza, Eusko Ikaskuntza'ri, Politika-alderdiei, eta abar...

Jakin dezatela guztiek, guk beintzat, naparrok, nola nai dugun gure iriburuaren izena. Edo-ta... Naparroa «kolonizatu» nai ote dute benetan napar ez diren batzuek? Utsetik edo deus ezetik asi nai dutenen politika izanen ote da nagusi gure artean?

Aipatu bearra dut emen Polikarpo de Iraizoz aita kaputxino jakitunaren idazkia: «IRUÑEA, IRUÑA, IRUÑE», (Fontes Linguae Vasconum, Studia et Documenta, 1980, año XII, n.º 35-36, pág. 427) aldizkarian «Príncipe de Viana»k argitaratua.

Euskeraz arduratzen diranek eta politika-arduradunek, irakurri bear lukete idazki sakon eta aberats au, guztiek irakurri ere. Ala ta guztiz ere, «Iruinea» nai ba'dute erran, erran dezatela. Baiña ormak eta iragarkiak edo salatariak zikindu nai ba'dituzte, zikindu ditzatela: ori dana kultura-neurri polit bat da.

Baiña... izenpetu ta azpimarratu ditzatela beren izenaz, otoi.

ELIAS AGORRETA

ZEIÑAK DITUGU GAUZA ETA GIZON OROIGARRIAK?

Gizon argitsuak, neurriz-gaiñeko gauzak eta gertakizun nabarmenak oroitu ta ospatu oi ditugu, geienean. Badituzte Gipuzkoa'ko Idiazabal'en ere.


Baiñan, bide berri bat artu dute izaltarrek eta gizon eta gauza arruntak ospatu nai izan dituzte. Ain zuzen, «artzaia ta gaztari eskeiñitako oroitarria» agertu zuten Jorrailla'ren 17'an, igandea zelarik.

Meza Nagusiaren ondorean, Huerta tallariak eraikitako oroitarriari ikusi bat eman zioten erriko semeek eta kanpo-

tik jaietara bildu zirenek. Inguruetako artzaiak antxe zeuden oorezko lekutan, baita agintariak ere. Alkateak egin zuen «ongi-etorria»; Gipuzkoa'ko Diputadu Nagusiak goraldtu zituen Idiazabal erria, ta onen artzaiak eta gazta famatua; Eusko Jaurlaritza'ren Ordez-kari X. Lasagabaster jaun agurgarriak zenbait itz egin zuen ere.

Ura zen jaija, ondorengo! Erriko bertsolariak eta Lasarte-Lazkaotxiki, kantatu bear dena kantatzeko. Dantzarien ekiñaldiaz gero, gazta, ogia ta ardoa eskeiñi zizazkien jaietan izanak ziren guztiei.

Eguerdian, P. M. Etxenike naparra, Eusko Jaurlaritza'rena, mai-buru zen lagun-arteko bazkari ederrean.



Gizentasuna

(nola zuzendu)

MEDIKU ZAARRA

Ikus dezagun lenengo, zer neurritan egon bear dugun gutako bakoitzak, liraintasuna galduz, gizentzeko arrixkuetan erori ez gaitezen.

Bakoitzaren luzetasunaren arabera, gorputzaren egokitasunak nolako neurrien barruan egon bear duen au da, bakoitzaren luzetasunaren neurrian, zenbat kilokoak izan bear dugun. Ez dira neurri berdiñekoak gizasemeak eta emakumeak; ta gogoan artu neurri egoki oien inguruan ibilli bearra dagoela, osasunaren kaltegarri diren jokobideetan ez ba'dugu murgildu nai.

Luzetasunaren neurria artzerakoan, oñutsik bear da egon; edo bestela kontuan euki, gizasemeak, bi zentimetro t'erdiko oñetakoakin ibilli oi dirala; ta emakumeak berriz, bi ta bost zentrimetroko oñetakoak ibiltzen badakitela.

Ta pisu-kontua, berriz, larru-bixian edo billutsik artua izan bear da edo bestela jakin, gizonezkoen jantziak daukaten pisua, batez beste, bi kilo t'erdikoa izaten dela, ta emakumeen jantziak kilo t'erdikoa.

Ona ba emen, osasuntsu bizi nai badugu, zer neurri egokiari loturik ibilli bear dugun:

LUZETASUNA	PISUA	
	Emakume	Gizon
1'57 m.	53'000	58'500 Kilo
1'60	55'000	60'300 »
1'62	56'300	61'700 »
1'65	57'600	63'000 »
1'67	58'900	64'900 »
1'70	60'800	66'700 »
1'72	62'600	68'400 »
1'75	64'400	70'700 »
1'77	66'200	72'600 »
1'80	68'000	74'800 »
1'82	69'800	77'100 »

Ta pisu-neurri oien goitik edo beetik arkituz gero, erabaki batzuk artu bear dira, neurri egokietara, edo ingurura beintzat lenbailen itzultzeko. Koipeak uxatuz, gizentasuna menderatzeko, gogoan artu bear dira zer jaki eta zenbat artu genezaken.

Eguneroko lanak utzi gabe, meetzea nai izanez gero, ona emen janarien neurriak:

1.500 kaloria edo bero-indar

GOSARIA	1 Kafe pixka batekin, edo gabe gaña kendutako esnea, batere azukrerik gabe 250 g.
	2 Galletak 30 g.
AMARRETAKOA	1 Sagarra edo garaiko fruta (platanoa, maatsa ta pikua izan ezik) 150 g.
BAZKARIA	1 Berdura edo barazkiak (gisante edo illartxiki ta babarik ez) 150 g. Edo ensalada (letxuga, tomate, tipula ta abar) 300 g.
	2 Gizenik gabeko aragia (beia, txala, ollaskoa, arkumea ta beste) 150 g. Edo arrai zuriak 225 g.



ASKARIA

Edo arrautz bi ... 150 g.
(arrautz baten orde, 100 gramo patata).

Edo urdaizpikoa 75 g.

3 Ogia 30 g.

4 Fruta 150 g.

1 Gosaria bezala, galletarik ez.

1 Katillu bat salda, koiperik gabea.

2 Eguerdian bezala.

3 Ogia 30 g.

4 Fruta 100 g.

OARRA: Olioia egun guzira, 30 gramo (bi kutxaradakoa).

Gizenen beste iru egoera aukeratu kontuan artze-koak ditugu:

A (2.000 kaloria edo bero-indar).

Eguneroko egi-bearrak astun edo neketsu xamarrak direnean, janariak pixka bat geitu egin bear dira; onela: aragia 50 gramo geiago; arraia 90 gramo geiago; arrautz bat geitu edo patata pixka bat ugaritu ta urdaizpikoa 25 gramo. Ta ogia ta olioia ere geitu pixka bat.

B) 1.000 kaloria edo bero-indar

Sail ontan sartzen dira egun geiena exerita edo atze-aurrera ibilli gabe geldi xamar egoten direnak; olakoetan janariak gutxitu era ontara:

GOSARIA Kafesnea 200 gr., galletarik gabe.

AMARRETAKOA Sagarra.

BAZKARIA 1 Barazkiak 200 g.

2 Aragiak 100 g.

edo arraia 150 g.

edo arrautza ... 100 g.

edo urdaizp. ... 50 g.

3 Ogia 20 g.

4 Fruta 100 g.

ASKARIA

Gosaria bezala.

APARIA

1 Katillu bat salda.

2 Bazkarian bezala.

3 Ogia berdin.

4 Fruta ere berdin.

(Olioia, egunean, 30 gramo).

C) 750 kaloria edo bero-indar

Oso gizenak egon eta egun osoa oean egon bearrean arkitzen direnak, eta baita ere zartzaroan sartuta gizen-gizen daudenean:

Janaldi guzietan, dena berdin B) Saillekoak bezala; baiñan ogia etabar kendu; gabeko fruta 50 gramora jetxi, ta olioia 15 gramo bakarrik.

AITA SANTUA ERDI-AMERIKA'N

Ibillaldirik arriskuena

Epaila edo Martxoaren lehenengo egunetan ibilli zen Aita Santua Erdi-Amerika'ko zortzi errialdetan. Illaren 2'an eldu zen Costa Rica'ra, 4'an Nicaragua'n ibilli zen, 5'ean Panama'n, 6'an Salvador'en, 7'an Guatemala'n, 8'an Honduras'en, 9'an Belice ta Haiti'n.

Beti erabili duen elburu bera eraman zuen Amerika aldera ere Aita Santuak: politika-alorreko asmoak ez-baiña, bete-beteen erlijio-maillako elburuak. Sinismenetik datorren argia zabaltzera joan zen, Kristo'ren ordezkodenez lurrean eta kristauen artean.


Kristo'ren Berri Ona zabaltzen saiatu da indar guztiz. Aurrez bazekien, bai orixe, batzuek gogoz artuko ziotela, baiña beste batzuek ontzat ez ziotela artuko ere bazekien.

Giro gogorra zebillen nagusi Erdi-Amerika'n eta oraindik ere alaxe dabil; errialde askotan ez nola-naiko borroka gaiñera: armazko borroka iltzaillea dabil.

Aurrez esanik zuen Aita Santuak, bere ibillaldia Garizuma'n egingo zuela. Zergatik? Kristo'rengana eraman bear gaituzten oiñaze ta itxaropenen garaia delako Garizuma. Orrelaxe, atsekabe ta samintasun aundien artean ere itxaropena zabalduz ibilli da Juan Paulo bigarrena bere lanean.

Beti bezala, jendetza aundiak bildu dira alde guztietan. Mintzaldi asko egin ditu, oparo zabaldu edo barreiatu du Jainkoaren itza. Alde guztietan pakerako bideak eskeintzen ibilli da.

Ez da ibillaldi erraza izan Aita Santuarentzat Erdi-Amerika'ra egin duen joan-etorria. Salvador aldean ibilli delarik, balaz il zuten Oscar Romero go-



Erdi-Amerika'n, denetarik: anitz ongi erria, anitz ongi agintariak ere, Costa-Rica'n bezala. Argazkian Monge Lendakariak bere emaztearekin batera biotzez arrera egin zioten Aita Santuari.

tzaiaren illobira joanda otoitz egin du. Eta itxura guztiak direnez, agintariak il ez ba'zuten ere, alien aldekoek tirokatu zuten, ain zuzen ere, Mezatako mintzaldian ari zelarik.

Guatemala'n adibidez, elkar-adiskidetzeari eskatu zuen: alde bateko ta besteko taldeen arteko gudaketak eta iiketak bukatzeko aalik laisterren, egiazko pake ta elkartasunera eltzeko. Alde guztietarako balio duen eskea da.

Guatemala'ko nagusi, Efrain Rios Mont deitua dago: ez da katolikoa, beste erlijiojera batekoa baizik. Eta Mont onek, ongi-etorria egitekoan,

aolku edo kontsejuak ugari eman zituzten Aita Santuari, zenbait apaizen eta mixiolarien aurka. Buru-makur eta serio entzun zion Juan Paulo'k. Eta bitartean, egun aietantxe, sei gazte erail zituzten Mont'en aginduz eta epairik gabe.

Beste ikustaldi gogorra, Nicaragua'ra egindakoa izan zen. Arrera ona egin zioten, baiña an ere Sandinotar agintariak aserre ta zorrotz mintzatu zitzaizkion Aita Santuari. Okerrena ta letzena, ordea, gero Mezatakoa izan zen. Aita Santua bere mintzaldia irakurtzen ari zen bitartean, ixkanbilla sortu zen. Batzuek pozik entzuten zioten bitartean, beste batzuek min artu zuten, Aita Santua beren aldera mintzatzea nai zutelako.

Ez daitezkeela bi eliza, bat bakarra baizik eta bera Gotzaiekin elkartua. Gotzaien aurka biltzen eta jokutzen duen jende-taldea ez dela benetako Eliza jatorra egiten ari, zatiketa egiten duela baizik.

Eta orduan sortu ziren oiuk ez zioten utzi. Ixildu egin bear izan zuen Aita Santuak eta Meza jarraitu.

Alde bietatik erasotua, alde bietatik gurutzera eramana bezala izan da Juan Paulo Erdi-Amerika aldean. Baiña bera erdian zutik, Kristo'ri elduta. Eskubitik eta ezkerretik, bietatik gaizki artu duten arren, ez da oietako iñoren esanera makurtu. Itxaropen argitsua zabaldua du jende askorentzat.



Nicaragua'n, berriz, muturrez artu zuten Aita Santua, argazkian ikusten denez.

J. GAZTAÑAGA

BERTS LARIA



LIZARDI

Aurtengo Epaila'ren 12'an bete dira 50 urte. Agirre'tar Joxe Mari, LIZARDI izenordekoz ezaguna, il zenetik. Ori dela-ta, ospakizun audiak egin dituzte Gipuzkoa'n. Batetik Zarautz'en, antxe jaio zelako ta bestetik Tolosa'n, bertan bizi ta il zelako.

Olerkari aundia, olerkari bikaiña izan zen. Antzerki bat-edo beste idatzi zuen eta aldizkari ta egunkarietako idazlanak ere bai. Itz lauz idazten oso ona ta trebea zen.

Baiña argitasun, doai ta asmamenik bitxienak, olerkietan azaldu zituen. «Biotz begietan» izeneko liburuan daude olerkirik onenak eta geienak. Ziñez ederrak dira guztiak.

Bertsolariek eta bertsozaleek ere irakurri ta ausnartu bear dituzte LIZARDI'ren olerkiak. Gizon ikasia zen eta jende ikasiek euskera gogotsu ikasi ta lantzea nai zuen. Olerki auek ez dira, noski, Lasarte bertsolari naparraren bertsoak bezain errazak ulertzeko. Baiña jakingarriak dira.

Euskaltzale jakintsu guztiek goraltzen dute Lizardi, eta olerkarien maixutzat jartzen dute «ORIXE» aundiarekin batera.

Gizon zintzo ta sinistun jator izan zen, Labaien jaunak argi ta garbi aitortzen duenez. Olerkietan ere ageri da Lizardi'ren sinismen sutsua.

Obeki ezagutu nai dutenentzat, oraindik orain atera dituzte argitara LIZARDI'ren olerki guztiak liburu batean.

Gazterik il zen, zori txarrez: artean 37 urte zituen. Beste ogei urtez bizi izan ba'litz, lan ederragorik egingo zukean, baiña...

ERREXIL

Euskal Pizkundea

Gau luzea, gau latza, gau izar gabea,
nekez gendun ikusi aren azkentzea.
Gau erdian, il zaigu amona gurea;
esku gogortuetan dauka gurutzea.

Goiza lañotan jaio zan noizbait. Leioan
apar zuri motela itxasi zegoan.
Begiak gorrituta sukaldera noan
nere ezurrek ikara goitik berakoan.

Gure sukalde zarra, etxe pizgarria:
bart, lagun arte gozo; gaur, bakar gorria.
Len epela jario, orain otz larria.
Amonarekin batez dezu utzi bizia.

Amonaren alxia, ago sutondoan;
aren ipuirik al dek ik jaso gogoan?
Ik ez? Laratzak, ezta...? Ez-uste gozoan
geunden, ta gure poza betiko da joan.

Ordun belaunikatu nintzan auts gañera.
Ark gordetako sua zu're il ote zera?
Autsa pitinka urratu nuan, beldur bera.
Sua bizirik dago! Galduak ez gera!

Poz oiua esnaraz nindun bat batean.
Zer dakust, Jaun aundia! Amona? Benetan?
Zerazu zakust bizirik begi ninietan.
Maitez erantzun zidan: GAZOA! Ametsetan..?

Geroztik ari nazu auts zaarrak astintzen,
aiton-amon guztien ipuiak jasotzen,
Erriaren pitxiak magalean biltzen.
Ez baita il gure Erria! Zutitu gaitezen!

Il ez da ta ez da ilko guk ez ba'degu nai.
Bizi irrikaz zegoan gure maitasun zai,
aren suzper bearrez goazen noranai!
Pizkor urra ditzagun malkar eta zelai!

Egizute nerekin aberri-bidea.
Bildu ditzagun nunnai asaben lorea.
Ta gaurdanik goritu gure sukaldea.
Ni nor naizen? Asmatu! Euskal Pizkundea!

Loiola'ko egunean

LASARTE

*Aita Santuaren aurrean
Jaunartze ondorengo bertsoak.*

Jaungoiko Jauna, eskerrak Zuri,
biotza bete-betean;
gu, senideok, alkartzen gera
Elizak dei gitean.
Gure biritza au bukatu eta
mundu ontatik joatean,
danok zurekin bildu nai degu
maitasun bero batean.

Kristo'ren ordezkoa degu gaur
gure artean deguna;
Erroma'tikan etorri zaigu,
au da poza daukaguna!
Fededunentzat au izango da
aztuko ez dan eguna:
Aita Santuak Euskalerrira
bixita egin diguna!

Juankruz Zapirain

EGITAR BI

Ez da izango Euskalerria'n jendeari Juankruz Zapirain'ek aiña negar egiñarazi dionik. Juankruz, «Santa Jenobeba'ren bizitza» kontatzen duten bertsuen egillea da, eta edonork esango dizu iñork ez dezakela bertso oiek negarrik egin gabe eztzun ala kantatu.

Lenago, gure baserrietan, neguko gau luzeetan, apal-ondoan zerbait irakurtzeko oitura bazen: Santuen bizitzak, «Testamentu Zarreko eta Berriko Kondaira»... Etxekoandrea izaten zen irakurlea batzuetan, eskolan aurreratua zebillen mutikoa edo neskatoa beste batzuetan. Entzuleak berriz, suaren inguruan eserita, familiko guztiak.

Orduan ez bait zen irratirik (radiorik) edo ikusirratirik (telebisorik). Baiña, bai, kultura, jakintza! Kultura bazen kulturaren maillan askoz gauza baliosuagoa eta edaragoa bait zen orduan egiten zen ori, gaurko ikusirratia txapelkeriei begira egotea baiño!

Liburuak etxez etxe ibiltzen ziren, negu batean baserri ontan, urren goan beste artan, txandaka, guztiak irakurriak izan aal zitezten. Orrela ibilli zen Juankruz'en Santa Jenobeba'ren bertsuen liburuxua ere. Gutxi izango dira gure Euskalerrion Santa Jenobeba'k bixitatu gabeko baserriak, eta kaleetako etxe euskaldunak. Makiña bat aldiz kontatu izan zizkidan neroeni ere nere ama Benite'k Jenobeba'ren bizitzako gertakizunak.

Juankruz Zapirain, bertsolari aundia izan zen. Errenderi'n jaioa. Bertsolariak izan zituen bere anaia (Joxe) eta bere aita (Joxebixente) ere.

Ongi bertsolari-erri izan zen benetan Errenderi! Errenderi'koak izan dira Xenpelar, onen adiskide Muxarro, Zabaleta anaia, «Taberna, Urruti, «Frailea», Txintxu, Telleri-Txiki, Panderitarra, Salaberri, Joxepantoni Aranberri'tarra..., eta baita oiek aiñako aipu aundiaren jabe egin ez ziren beste batzuek ere. Ta, Txirrita bera! Naiz errenderiarra izan ez, Errenderi'n egin bait zitzaigun bertsolari Txirrita! Badu arrazoi Zabala'tar Antonio'k, Errenderi'k aiña bertsolari sortu duen erririk ez dela izango esaten duenean.

Brabante'ko Jenobeba



Ilbeltzaren 3'an jaio zan Juankruz, 1867 gn. urtean. Santa Jenobeba egunean! Bere abizena «Zapirain» agertzen da paper batzuetan, eta beste batzuetan «Zapirain». Betiko paper-ixkamila eta nasketa! Euskalerria'n paperak oso gutxi balio dutela!

Juankruz jaio ta laister il zitzaion ama erditze-ondorengo gaitzez. Lekuona'tar Imanol'ek emanda dakigu, Juankruz berak nola kontatzen zuen bere aurtzaroa. Entzun.

«Bularreko aur nintzela amarik gabe gelditu nintzen. Arreba zarrenak azi ninduen...besteren bularrean. Goizeko plazara joaten ziren emakumeen bularretik azia naiz. Emakumeak amarrak aldean, plazatik etxera, zijoazten garaian, bi-

degurutzetara ateratzen ninduen arrebak, emakume aietakoren batek bularra emango ote zidan. Baita pozik eman ere aiek, ordu artan esnez lertzen zeramaten bularretik».

Juankruz'ek ez zuen eskolara joaterik izan, bigarren karlista-gudu ondorean, etxe, baserri eta eskolak, guzia ezerezturik gelditu bait zen Errenderi-inguruan.

Donosti'ko neskatz batekin ezkondu zen eta Donosti'ko Loiola'n bizitzen jarri, Telleria izeneko baserrian, Urumea ibaiaren alboan. Gaur kuartelak dauden tokian. Oso baserri polita omen zen baserri ori, eta baita an zeuden beste biak ere. Iruak izan ziren, kuartelak egiteko, bo-teak. Naitanaiez andik aterata, Errenderi'ra itzuli bearrean aurkitu zen Juankruz, eta Errenderi'n il zen, 1934'an. Irurogei ta zazpi urte zituela. Arramendi baserrian. Errenderi'n ezagutu omen zuen Lekuona'k, berak diogunez, eta ezaguera orri eskerrak dakizkigu ainbeste gauza Juankruz'eri buruz, Lekuona izan bait da Juankruz'en (eta bertsolaritza osoaren) lenengo ebanjelista. Ta, bigarrena, zalan-tzarik gabe, Antonio Zabala tolosarra.

Jenobeba'ren Bertsoetatik gaur emango dugun zatia luzea bait da, eta datorren illean Joxe Zapirain, Juankruz'en anaia bertsoetatik itz-egingo bait dugu, ordurako utziko dugu Zapirain Anaia bertsoegintzaren balioa, duintasuna, eta merezimenduak, zertan dauden adieraztea.

Brabante'ko Jenobeba

Sijifredo Kondeak bere emazte Jenobeba, eta onen ume jaio-berria, erio-tzara galdu zituen, ume ura Jenobeba'k morroi batengandik izan zuela sinis-tarazi bait zitzaion. Borreruek, errukiz, bizia barkatu zieten ama-seei, eta arrezkero baso batean bizi ziren auk. Gudatik itzuli zenean jakin zuen Sijifredo'k egia. Zearo samintasanuk jota gelditu zen. Samintasan artatik ateratzearren, eizera eraman zuten bein bere gudariak eta an aurkitu zuen emaztea.

Kondia, nunbait ala bear-ta,
puntutz bakarrik jarri zan;
basauntzatxo bat ikusi-eta,
aberetikan jetxi zan.
Zaldiya lotu arbolan eta
bere atzetik asi zan;
elur-marketan billatu zuben
zein artzulotan bizi zan.

Artzuloaren bokan zeguan
barrengo aldera begira.
Beregan ziyon: «Emen pertsonak
diruditenak badira».
Kristaba ba'zan deitutzen ziyon:
«Atoz ni nagon tokira».
Ai, Jenobeba! Nolakua zan
orduko zure mugira.

Abiyatu zan kueba-zulotik
bañan nolako moduan!
Onuts gorriyan, besuak igual,
ille nastuba buruban.
Ardi larruban bilduta zegon,
oso itxura galduban.
Kondia bera ikaratu zan
ikusi zuben orduban.

Au da kondiak esan zubena:
«Nere emazte umilla!
Aren anima bera zera zu,
emen borruak illa.
Urte askuan ni ibilli naiz
zure gorputzaren billa..!».
Agindu ziyon lengo lekura
erretiratu zedilla.

«Ai, Sijifredo! Ez naiz anima;
egitan dizut esaten.
Pentsatzen nuben, il nintzalako,
nola egongo ziaten.
Bi gizon prestuk mortu ontara,
gabaz ekarri ninduten.
Beren zakurra zala meriyo
biziya gorde ziraten».

«Ai, Sijifredo!, Zeñen ona dan
Jaungoikoaren laguntza!
Beraz, ez dezu ezagutuzten
emaztearen gorputza?
Ona eskuan zuk diamantez
apaindutako beatza».
Orduan kapan bildu zuben da
lertu zitzaion biotza.

Auspez onetan jarrita zion:
«Ordea, nola diteke?
Amets egin det bizi zerala;
bestela ezin diteke.
Ai, Jaungoikua! Ori neretzat
poz gelegia litzake.
Lurra gañian edukitzia
ere merezi ez nuke».

Elur gañian auspez zebillen
emaztiaren onduan,
lo torpe batek zozorbatuta
ibillitzen dan moduban.
«Ai, il ba'nintzan sententzi ura
pentsatu nuben orduban!
Nigatik inork ainbeste pena
pasako etzuben munduban».

Bere senarra alaitu zedin
itz egin ziyon onela:
«Bizi al zaizkit aita ta ama»?
«Bai. Osasuna zutela».
«Ote dakite kulparik gabe
basuan illa naizela»?
«Bai, Jenobeba; guztiyok geunden
lutuz jantziyak bezela».

Izketan ola egondu ziran
biyak denbora askuan;
bai aurra ere zelatatutzen
kueba-zuloko kaskuan.
«Amatxo: gizon gaixtua al da ori»?,
galdezka boza estuban.
«Ez, Desdichado; zure aita da;
muñ egiyozu eskuban».

Basauntza-larraz jantziya zegon
mutitxo bozal-bozala;
ao borobill, begi biziyak
arpegi zabal-zabala;
kolor gorriya, ille kizkurra;
aita zan bezel-bezela.
«Au, Sijifredo, zurea det nik
zerorren igual-iguala».

«Ai, Jenobeba, nola ez dizut
nik zuri sinistatuko?»
«Bai; esan nuben nere semetzat
ez nubela ezagutuko;
gañera berriz, -zer itxumena!-
biyak ezpataz iltzeko.
Eskerrak, Jauna, ditxa dedala
orain besuan artzeko».

Semetxua artu besuan eta
negarrez zuben esaten:
«Ni naizelako zenbat pena ta
mixeri pasa dezuten!
Alaz guztiyaz ez didazute
arrazoi txar bat ematen».
«Ai, Sijifredo, nik banekien
nola engañatu zinduten».

«Bai, Sijifredo, zazpi urte da
etzaitudala ikusi.
Gañera ez nuben nere guraso
onen berririk ikasi.
Pena guztiyak aztutzen zaizkit
aiek diralako bizi.
Konbeni ba'litz ara juatia
eska zaiogun Jesus'i».

Kondia asi zan oraziuban
kontutik iya joanian;
aurra poztu zan aita ikusita
ain debozio onian;
berez jarri zan belaunikoka,
zekiyelako denian,
bi eskutxoak gora jasota
amaren aldamenian.

Aitak ikusi zuben orduan
semetxuaren jarrera,
negar-malkuak ugari asko
zijoazkion lurrera.
«Ni naizelako etorri zinan
onen paraje txarrera.
Lagun nazazu ohea izaten,
Jesus, emendik aurrera».

Beti senarra triste zegon-da
kontsolatzia nai zuben.
Galdetu ziyon bakarrik al zan
edo lagunik ba'zuben.
«Bai Jenobeba: Askorekin naiz.
Nik etorri nai ez nuben...
Orra Jainkoak zeñen ederki
gauzak zuzendu dituben».

JUAN KRUTZ ZAPIRAIN



Gernika'ren erreketa

L. REZOLA, «Tximela»'k
(21 urte zituelarik)

Juezarengana deia
eginikan neri:
«Franco'kin pozik nagon»,
erantzuna sarri;
esan edo ez esan
egon nai Juezari:
«Txina'n ohea dala
ibili gudari!»

Txina'ko gudariak
au ba'lekiteke,
neri pozik musika
joko lirateke.
Iru izarrekin emen
kapitan rekete
izan baño, naigo det
Txina'n mikelete.


An igaroko nitun
sei urte gutxinaz,
alare ez nintzake
aspertuko Txina'z.
Frankotarrek ezin
bitzita eginaz
nago-ta, komeni zait
aldatzea klimaz.

Juezaren aurrez aurre
exerita ni jarri,
galdera txar batekin
biotza dit eri:
«Ea zeñek erre zun
Gernika'ko erri».
Atzo berak zekina,
gaur galdezka neri.

Jauna, nik orren barren
txarrik ez det izan;
Oitz'en nengoala
Gernika erre zan».
Ori etzan erreko
-orra garbi esan-
Alemanik onuntza
etorri ez ba'zan.

Alemana goitikan;
Italia lurrez;
ta Moroak, tartean,
gorroto gogorrez.
Zuregana ni ez naiz
etorri gezurrez;
oiek egik dirala,
sinistazazu, Juez!»

Ni zutzaz oroitzean,
Gernika eder ori,
biotza tanpetaka
asitzen zait neri.
Zure txaire ta baratz
odolez estali...
Orrengatikan dago
negarrez Euzkadi!



«...zutirik dago Arbola...»

Milla eta bederatzieun
ogei ta amazpian,
euskotarrentzat urte beltz, illun,
triste ta negargarria.
Auts biurturik utzi ziguten
Gernika zoragarria,
eusko reliki maitatuena
gordetzen zuen erria.

Pitxirik goxo ta kutunena
zu ziñan euskaldunentzat;
lur mardul ona eman zenuen
Arbola santuarentzat.
Pentsatu utsez begiak baita
dauzkagu negarrentzat,
orra zer sari-modu zeukaten
etsai ankerrak zuretzat!

Apirille'ko illarekin zan
ogei ta seigarrenean,
ain justu ere perieguna,
astelen-arratsaldian.
Kale-basari millaka anai,
gizatasun ederrean,
plaza buruan arkitzen ziran
lengo oitura zarrean.

Kanpai-torreko ezkilak asi
ziran dinbili-danbala;
goiko-piztien motor burrunda
entzuna zan bereala.
Emakume ta ume gaxoak
korrika zerietela,
eriotzari igesi nairik,
nora jo ez zekitela.

Bertsoz nork esan bonba aien indar
gaiztoko danbar-danbarra...?
Ez zuten, beintzat, osorik utzi
bizi-leku bat bakarra.
Ta dana sutu zuten garaiari
alde guzitik sugarra:
errugabeko gizaxoentzat
orra or azken ederra.

Bizirik ziranak iges zuten
sutegi zatar artatik;
baña egazkiñak, tiro-ta-tiro,
etengabe goletatik.
Kristau gorputzak alde batetik,
beren buruak bestetik;
odol gorritzko itxaso artan
ez zan ikusten besterik.

Eunka izan ziran etxe yausien
zakarpetan geldituak,
nork daki zenbat kale-gorrian
zearo erdibituak.
Inpernu ontan uzten gaituzte.
laguntza gabe galduak;
ai!, euskaldunen min oñazerik
ez du sentitzen munduak...

Millatik gora igaro ziran
arnasa utzitakoak;
ez jakin zenbat, bizi guziko,
eri gelditutakoak.
Eta oietan, geien-geienek
andrezko ta umetxoak:
guda txar ontan erru galantak
izango zuten gaxoak!

Puska egin zuten gure erri polit,
apain eta maitekorrak;
puska dituzte basarri zuri,
gure kabi on xamurrak.
Ta zirtzildurik kaletan utzi,
oi!, euskaldunen ezurrak,
Alemani'tik gu txikitzera
etorritako maltzurak.

Basati, gaizto, odoltzaleak
atzeritatik ekartzen,
tokirik zoragarrienari
txikitu ta su ematen.
Au da egindako gure Gernika'z
aintzikan nago esaten:
Franco ta bere laguntzaleak
zein biotz ona daukaten.

España aundi bat egin asmotan
guda txar ortan asiak;
ta eusko erririk ederren aiek
zegoen aginduz autsiak.
Denbora joan-da gero damutzen
zaretan pekatariak:
zein: griñatako jaunak zeraten
badaki mundu guziak.

Ikusi zuten neurrigabeko
pekatua zeukatela,
ikusi zuten ainbat kristau on
oldo-uztu zituztela.
Ikusi zuten munduak kontra
jaikiko zitzaietela
eta, orduan, zabaldu zuten
«gorriak» erre zutela...

Bere lekuan erne ta zintzo
ortxen dago euskalduna,
berak badaki zein ederra dan
barrengo garbitasuna.
Itxaron, jaunak, itxaron lasai!
Etorriko da eguna,
Goiko-Yaunaren aurrean, kontu
eman bearko deguna.

Ez da, ez, alperrikako izan
or ixuri dan odola;
pentsa oraindik emaitzederrak
emateko tan daudela.
Euskal gogoa ernez ta indarrez
ezin il leike iñola:
Gernika erre ziguten, baña
zutirik dago Arbola!



GAUZA BITXIAK



SEIKIAK SEI!

AUXE BAI DELA
AMA GAZTE
BATENTZAT!

Gauza jakiñekoa da, azariak jakin-miñ edo kuriosidade aundia duela. Arthur Cutter jaunak bere lorategian ipiñi zuen argazki-makina. Poliki-poliki asi zen azaria makinaren ondora urbiltzen. Iru illabeteren ondoan, orrelaxe makinatik begira jarri zen. Argazkilari bizko-

rrak bai laister beste argazki bat atera ere, or ageri den eran.

Or dago gure galdera: nola ikusten ote du mundua azariak? Laun ankako azarien berri ez dakigu. Anka biko azarien ikuskera ere ez da erraza ezagutzen.




MUNDUA NOLA IKUSTEN OTE DU AZARIAK?

Biki edo bizkiak ezagutzen ditugu, ta irukiak ere bai. Baiña orra or Itali'ko siki batzuk, siak jaio-aldi berekoak. Nork sinistu?

Baiña zeinñen eder eta zoragarri ageri diren seiak elurretan. Sendiaren edertasuna! Eta orain penttsatu besterik ez, jaio aurretik oso erraz galdu zitzakeala beren amak: aur-galtze edo aur-kentze bat egitea naikoa zelarrik, eta bestela...aurrez pildoratxo bat artzea beste gabe...

Betoz ume zoragarriak mundura: banaka, baiña betoz ugari ta eder.



Martxo-Epailla'ren 22'an, Euskarak arrera ona euki zuen Paris'en, goi-go maillako jakintza-lekuan. Egun go-goangarri artan, bi euskaldun goralduek izan bai ziren, beren lan jakingarriengatik. Bata, San Sebastian dar Joxe Mari, au da «Latxaga» idazlea; bestea, berriz, Oñatibia'tar Yon (G. B.). Biek Izkuntza-Doktoradutzako Ageria eskuratu edo erdietsi dute.

«Latxaga»'ren lanak izen-buru au darama: «Representation des temps dans le verbe basque», au da: «Dembo-raen agertzea Euskal Aditzean». «Latxaga» berak aldeztu zuen bere lan sakon eta garrantzitsua; Sorbona'ko Irakasle jakintsuek, Goen-goeneko Agiria emateko garaian, erabat zoriondua izan zen.

Adierazi bearra dago, Sorbona'n, «Latxaga»'ren sari-jasotze au ez dela lenengo aldia izan; leen ere, aurretik beste bi Doktoradutza jasotakoa bait dugu «Latxaga» jauna. Izan ere, oietako ekintza bati eltzen dionean, sekulan lanean aspertzen ez den gizon jakintsua bait da; orrela ba, eskuraturik zituen Sorbona bertan beste bi doktoradutza: Antropolojian bat, eta bestea Teolojian. Zorionik beroenak beraz «Latxaga» adiskideari, eta jarrai dezala gure Euskera-baratza atxurtzen, gutxik dakiten bezala.

Bigarren Doktoradutza Oñatibia'tar Yon'entzat izan zen Badakigu denok, ezbearrez, bidean zijoela, bi berebillen artean il zela Oñatibia jauna; orrengatik, il da gero erdietsi du bizi zelarik eskuratu ez zuena. Or gelditzen da bere lanaren adierazgarri.



Paris'ko Sorbona Ikastetxe Nagusiaren sarreran: «Latxaga» bi arrebeekin Oñatibia'tarrak, Azkue senar-emazte donostiarrak, Latiegi'tar On Bixente ta Sorbona'ko iru Irakasle.

Lan orren gaia au izan zen: «Structures generales de la Langue Basque. Analyse morphologique de l'Eskuara», au da: «Euskeraren egitura orokorrak. Euskeraren Morfoloji-azterketa». «Latxaga»'ri bezala, Goieneko Doktoradutza eman dio Paris'ko Sorbona'k Oñatibia'tar Yon zenari.

Orain arte, ez da Sorbona'ko Ikastetxe Nagusian ildako inor Doktoradutzaz saritzeko oiturarik izan, beraz, lenengo aldiz, gure aberkidearekin gertatua da.

Oñatibia'tar Yon oso ezaguna zen Euskalerrri'an eta Kanpoko leku askotan, Ameriketara batez ere, Euskera irakas-

teko era berezi ta egoki baten sortzaille ta zabaltzaille izana bait zen. Berri pozgarri onekin, poztuko dira -gu bezala- ere jarraitzaille guziak.

Naparroa'ri dagokionez, emen ere lan aundiak egin zituen Yon Oñatibia'k euskeraren alde. Onela, bada, 1973-78 bitartean, Euskera Irakasteko Ikastaldiak Oñatibia zenaren ardurapean eratuak izan ziren, Diputazioaren babesean eta andereño ta irakasleentzat bereziki.

«Latxaga» jaunari zorionak; Oñatibia'tar Yon maitarentzat, gure oroipen eta otoitza.

OIARZUNA

LEKUONA'TAR M. JAUNARI OMENALDIK

Don Manuel dugu euskal apez idazle jakintsua. Oiartzun'en jaioa eta bere bizi guztia Jainko eta euskal jakinduriaren alde eskeiñia.

Don Manuel Gazteiz'ko Seminarioan txikitandik ikasia, «Euskaltzaindia»'ren zuzendaria; «Kardaberaz» sotzaillea, ikerlari... Jainkoak emandako grazia, zindo, landu eta zabaldu duena.

Bide au jarraitzeagatik ez zaizkio falta izan odol eta gerrateko zailtasun eta tristura ugari; baiñan, utzi dezagun barkamen eta aaztuan.

Eldu zaio ba omenezko ordua, eta Gipuzkoa'ko Diputazioak bere urrezko domiña eskeiñi zion orain gutxi, eta Eusko Ikaskuntzak, bere aldetik, beste omenaldia, soiñuz betea, Victoria Eugenia antzokian eta gero bazkaria «Hotel Maria Cristina» delakoan. Antxe eskertu zioten gure agintariek Don Manuel'i ainbeste eta ainbeste lan egiñak euskararen alde.

Aien artean aipatu dezazkegu bere «Euskal Literatura», eta batez ere «Aozko Literatura lanak», azter-metodo berria erabilliz; oroimenezkoa, pentsamendua zulatzaile eta sintetizaillea. Etnolojia, eta antropolojia lanak sendoenetakoak dira. Historia alorrean bere lan asko eta jakingarrienetakoak dira. Euskarazko lan zientifikoak. Umeendako egindako liburuak; aien artean «Txuri-Gorri eta Kikirriki», eta ainbeste olako politak. Ontaz gaiñera, Don Manuel'en idazlan guztiak bear dira argiratu eta ezagutu, gure kultur oiñarri dira, bearrezkoak gure kultura oinarritzeko, nortasuna ezagutzeko eta ez aaztutzeko. Munduan zear zabaldu dezatela gure bereixtasuna, guk gure aldetik bultzatu dezagun gure ikasleak aietxek irakurtzera... maixu aundi baten lana bait dugu.

Milla esker denegatik, Don Manuel.

S. ERBITI



• E R R I Z - E R R I •

Baztan

Idatz-Sariketa, 1983

Baztan'go Balleko Etxeko Kultur Sailak antolaturik ospatu dugu euskarazko Idatz Sariketa bat Baztan'go Ikastetxeko

ikaskeen artean. Hiru mailetan berezi dugu euskal idazle gazteen lehiaketa hau: 1'goa, BOU, COU eta Lanbide Eskola'ko Taldea; eman zitzaien gaia, «Lurra eta gizona»; 2'gna., EGB'ko 6, 7 ta 8'gn. kursokoak; gaia, «Zuhaitzak»; ta 3'gna., EGB'ko 3, 4 ta 5'gn. kursokoak; txikienek «Ipuin kontakizunak» egin zizkiguten.

Haundiek 139 idazlan agertu zituzten:

Lehenbiziko Saria: KORO IRATZOKI, Zugarramurdi. Lanbide Eskola.

Bigarren Saria: Klari Leitza, Aranatz, Lanbide Eskola.

Hirugarren Saria: M. Jesus Irigoien, Doneztebe. Oronoz'ko BUP.

Erdikoeak 93 idazlan agertu zituzten:

Lehenbiziko Saria: MARIA INES ELIZALDE, Ziga. «Concentración».

Bigarren Saria: Maria Isabel Aleman, Amaiur. «Concentración».

Hirugarren Saria: Ana Garaikoetxea, Lekarotz. «Concentración».

Txikiek 51 idazlan agertu zituzten:

Lehenbiziko Saria: FRANTZISKO ELIZALDE, Ziga. Ziga'ko Eskola.

Bigarren Saria: Josune Ballarena, Elizondo. Elizondo-Ikastola.

Hirugarren Saria: Iranzu Izeta, Elizondo. Elizondo-Ikastola.

Aurtengo Idatz Sariketa hunek arrakasta handia izan du, 283 idazlan ez da guti, hor ageri baita norbaitek mugiarazi duela ikasle gazteen zaletasuna eta sarrazi ere laneko gogoia zabarkeri guziak alde batera utzirik. Ezta lehenbiziko aldia idatz Sariketa egiten dugula, 1981 garrenean ere ospatu baiginuen eta hura ere Baztan'go Kultur Sailak antolaturik. Lehenago ere ospatu izan dugu idatz lehiaketa; 1969 eta 1970'garrenean «Principe de Viana»ren babesean egin ginuen eta ondoko urtetan sei edo zazpi urtez Nafarroa'ko Aurrezki Kutxa'ren laguntzarekin. Lehenago egin dira bainan aurtengo hau dugu hain segur denetan Sariketa'rik hoberena, idazlan aunitz, eta


sariak ere denentzat (liburuak eta irakurgaiak). Baztan'go Balleko laguntza, handia izan da eta gure goresmen bizenak merezi ditu. Idazleak ere aski ongi ari izanak dira, lan onak agertu dituzte batez ere haundixko hoiek. Gure gazte hauek erakutsi digute Nafarroa'n ere badela gai ona euskal idazleak sortzeko. Nik uste hortan badugula aurreapena eta hola jarraiki ez geroz gure sorlekuan agertuko direla idazle onak edo beti ere euskaraz poliki eginen dutenak. Zorionak Baztan-Bidaso'ko idazle gazteeri.

MARIANO IZETA



Elizondo'ko Lanbide Eskola, euskal idazle gazteen labe piztua.

Filipinas



Etxeberria'tar Patxi, gure «beti gazte» «PRINCIPE DE VIANA» irakurle ta lan-kiderik urrutitsuena: 40 urte ta geiagotan, urrutiko Sortaldean mixiolari.

Garbiketa

An bizi nintzanean, Donosti iria oso txukuna genduan. «Bilintx» ertilaria bezela, zakar-biltzalleak bertako semeak ziralako, noski.

Orrela, nabillen bazterretan, iriko zakarrak zertaz ezabatzen dituzten ikasi naiean, so eta so lanak izaten ditut. Ez garbiketan. Baizik txai-detako zikiñak nola bildu eta nora daramazten arakatuz.

Emen, Pilipinas Ilo-Ilo ontan bezela ari zaizkigunik, beste inon nik ez ikusi.

Iri ontako arte nagusietan, ia ludi guztikoak bezela ari oi zaizkigu. Eta kale-garbitzalleen artean emakumezko bat edo beste ere or degu. Ez Manila'n aña. Manila iri nagusi ortan bai, emakume-saillak dituzu zakar-biltzalle.

Bizi naizen etxea, ementxe itxasertzean det. Oso txoko alaiean. Saturraran'en bizi izan nintzaneke egunak gogoratzen zaizkit.

Ilo-Ilo'ko bazterrean gera, beraz. Eta, emen ere, etxe-atari eta kale-ertzetan uzkin eta itsusikeriak izaten ditugu. Biltzallerik bakarrik ez, Udalaren sariz.

Orrela, bakoitzaren atariko zakarrak eta batzutan etxe-atzekoak ere, nabarmentzen diranean, pilla-txoetan (txondar tikietan) bildu eta erre egiten dizkigute. Suak dira bitartean, txondartxoak piztu duena begira ibilliko da, urrutira joan gabe; beintzat, aizea indartutako ba'litz, sua ez dedilla beste inora zabaldu.

Kale-tarte bi ditugula, loseba Deun txadonaren aurrean oso zamardi atsegingarria. Pilipin auetan, Ilo-Ilo'n bezela, toki askotan erriko Zaindari-Deun txado-

naren aurrean enparantza zabala. Beti ez zumardirik. Berealaxe nekusazkian Argentina'n, txadon-aurreko enparantza ederrak. Garai zar aietan, erriko agintarien laguntzaz txadonak eraikitzen, eta agintari oriek berak lurra eta toki eskeintzen. Oparo. Guztia maiteki aukeratuz.

Ilo-Ilo'ko zumardi orri izen berria ezarri diote: noskiago, bertako Erkala bere buruaren iabe gertatu zalarik. Izen auxe, alegia «Azkatasun Enparantza».

Zumardia urte guztian ostoz ezeze; azpian eta tartean, belarra. Askatxotan loreak poliki zaintzen dituzte. Ondoren, aldizka, belarra ebaki. Kirten luze-luzez itai ao-zabalak. Itai oriek Euzkadi'n oi dituzten baño motzagoak. Oso zorrotzak. Lanarakoan itailariak makurtu bearriz ez. Gerriak zutik lirain-lirain ain nolabait ari izaten dirala iduritzen neri. Izerditzeko beldurrik ez. Itzala maitetxo dutelarik atseden-alditxoak aukeran artzen.

Ebakitako belar ori iartzen danean, eta zumardiko zuaitz-ondoei ostoa eldu-eldurik erortzean, bildu eta bertantxe erre. Txondar ttikitant, alegia. Geroago euriak autsak garbitzean, txondar txuloak ageri. Poliki ematen dute, eta neroni ametsetan bezela Euskadi'ko mendi eta txaratara noa...

ETXEBERRIA'TAR P.
(Ilo-Ilo)

Baigorri

KULTUR ASTEA

ZIPRI ARBELBIDE



Ehun bat lagun bildu da Baigorri'n Kultur Astearen karietarantz egina izan den elkarhizketan.

Astearte goizean 6.30'etan, 6 abertzaleen etxeak miatu (billakatu) dituzte gendarmek eta P. J. deitu poliziek. Hiru Baigorri'n eta Ortzaiz'en, hiru Uztaritze'n Donibane-Loizun'en eta Hendaya'n.

Baigorri'ko gazte bat gendarmeari eraman dute eta han galde batzuk egin ondoan, etxerat utzi dute.

Pau'eko kontseilu jeneralak, «Bakea» deitu etxea erosi zuen Baiona'n, ofizina batzu ezartzeko

Betelu

«Latei» il urte-buruan



Loentxo Otamendi, gure «Latei», Santos Ipiarrekoarekin; auxe bere adiskiderik oberena izan zen. Argazkia, Migel Santua etorri zen batean ateratakoa; or daude elkarrekin, poza ariman eta baso bat ardo eskuetan...

Betelu'ko txokoa eleiz nagusiaren atzeko aldean, bizi zan gizon on bat, onik baldin ba da mundu onetan. Auxe zan «Latei».

Sendi ederra azi zuan bere emazte Mikela'rekin. Sei mutil eta bi alaba gelditu dira. Seme zarrena, Apaiz Arbizu'ko errian; alaba bat, Martina, monja Benezuela aldean. Urte batzuk badira gure gizon on ori alargun bizi zala, gure Jaunak beregana deitu bai zion bere emazteari.

Baña gogoratu dezagun gure Loentxo au, ala bai zun izena gure «Latei» oneko Azkarate'ko errian jaio zan. Balardi'ko malkorran azpin, eta bere gazte denbora artzai eta nekazari lanetan igaro zuan. Ezkontzaz etorri zitzaigun Betelu'ko Elosa'ko mendiaren azpiko etxe txiki batera; bai, gizon jatorra etorri ere. Atsegiña, leiala, alaia, bat baldin ba'da ere. Laguntzalle bizkorra nunbait lanerako bearrik baldin

eta biltzarra zonbati egiteko. Berrik iparretarrek zartagailu (bonba) bat ezarri zuten etxe horretaz, makur handiak egiten zizkiotelarik. Iduriz, atentatu horren ondorioz dituzte etxe horik miatu.

Miatze horiek ez dute ondoriorik izan ez bada herri taldeen ageri bat: «Zergatik etxe miatze horiek Baigorri aldean, Kultur Aste batean; Nafarroa'ren Egunean? Hiru miia jende bildu direlakotz eta abertzaleak herria aintzinean zikinduz, aste horren arrakasta txipitzeko».

ba'zen an ekusiko zendun «Latei», naiz bere etxeko lanak erdi egiñean utzi. Zer lan ote da mundu ontan egin ez duanik gure «Latei» on onek? Guda ondorengo garai zail aietan, danari esku bat bota zigun tratanteari, ogi eginzaleari, danari, bere bei parearekin eta gurdiakin zenbat gauz ibilli ote zitun! Orregatik, orain, Betelu'ko etxe guztietan samintasuna dago.

Itsuririk gelditu zala urte mordo batzuk badira; baño, ala ta guztiz ere, alai bizi zan, etzuan ibiltzeko lagunik falta. Ori izango zan polita: berak danak laguntzen, eta berari ez, laguntzera bear zanean.

Bere 82 urtekin tabernan ere uts ederra utzi zigun; bere gidari tabernatik etxera joateko lagun ona, oraindik negarrez dagoana, Santos Ipiarrekoa da bere 88 urtekin. Oiek dira gizon jatorrak eta kristau zintzoak.

Bere azken agurra egitekoan, Betelu'ko Pedro Donearen Eleiza txikia zan danon, gizon eta emakume kristau jator oni agur esatea joan giñanak, esaltzeko. Bere seme Kelemente apaizak eman zuan Meza, alboan 20 bat apaiz zitularik, eta itz garrantzi aundikoak esan zitun ere. Zenbat ote giñen negar maikoz begiak beterik geudenak?

Joan zitzaigun, ba, kristau ospetsu eta serbitzaille jator-jator ura, gure Jaunak arrentzat prestatutako beti-betiko atseden eder artara. Eta orain andik ere guri begira, eta zer edo zer guretzat egiten, ariko da zalantzarik gabe.

Betelu'ko elizako abeslariak abestu zuten bezala: AGUR, BAÑA GERO ARTE!

AIZTITXO


JAUNARTZEA IKASTOLAN

Aurten 40 aurrek egin dute bere Lenengo Jaunartzea Lizarra'ko Ikastolan.

Festa bat da urtero egun au Lizarra'koentzat, eta urtero umetxo geiago alkartzan dira aldare ondora: 1975 urtean, ain zuzen, zazpi ziren egin zute-nak Puy Baselizan; gaur egun, berriz, leku-ori txikia gelduturik, San Juan parrokian izan da.

Don Esteban Irigoien erretore jaunak ongi aztertu zuen egun orren garrantzia, bai umeen ta bai familientzat eta ala nabari zuten aurrek, ongi segitzen zer eginkizun aundia bete bear zuten egun artan, eta ala egin zioten bere eskaera Jainkoari. Gero «Gurasoen» abesbatza, txistuak, kordionak, etab. Andik ataratzekoan, enparanzan, Lizarra'ko dantza ederrak ikusi genituen.

Denetara, festa euskalduna Lizarra'ko lurraldetan; ala jarraituko, du-darik gabe, ango gurasoak langille ta abillak bait dira, aieri eskerrak gure lurralde eder ortan bizirik irauñen du euskarak.



KIROLAK

Pelotariak

BENGOETXEA IV

eta

MAIZ II

IRABAZLE BIKOTE ERAN

Naparroa'k, pelotan oso indartsu da-bil. Ikusi besterik ez dago.

Pelotari bikoteak or ibilli dira txapelketa gogorra jokatzan. Partidu ederrik ikusi du jende pelotazaleak Euskalerrri'ko pelotalekuetan.

Beste bikote guztiak menperatu ondoren, Bengoetxea IV ta Maiz II, pelotari biak naparrak, garaille ta nagusi gertatu dira. Beste bikotea, egia esan, ez zen oso txarra: Garcia Ariño IV ta Gorostiza bizkaitarrak bai-ziren aurkari.

Azkenean, naparrek 22 tanto ta bizkaitarrek 11 bakarrik. Naparrek irabazi zuten Txapelketa.

GRAVN TXAPELKETAN

ERE

NAPARROA NAGUSI

GRAVN pelotari gazteagoen txapelketa, sei-zazpi eratarata jokatzan dute. Gazte auen artetik badatoz pelotari onak, Retegi ta besteen urratsak jarraituz.

Onela gauzak, esku-pelotazko partiduetan galdu egin zuten naparrek, bai banaka ta bai binaka.

Baiña... palaz, pala laburrez eta larruzko pelotekin paletaz, naparrek irabazi zituzten Txapelketak. Zorionak!




Urte guzian zear, «OSASUNA» Taldea arriskuan



Urte osoan larri ibilli da «Osasuna», Iruña'ko futbol-taldea. Geienean eziñean dabillega ikusi dugu. Baiña... gutxienik uste genuenean, or irabazten zuen... Eta orri esker, lenengo maillan iraungo du urrengo urtean ere.

Argazki bitxia, or begien aurrekoa: nola ulertu? Argazki ori ulertzea bezain zailla izan da «Osasuna»'ren jokabideak ulertzea. Bai, Martin futbolista or dago erori ez erori: orrelaxe ibilli da gure taldea.



SUMARIO

- 1
UDABERRIAN NEGARRA. Tierna y puntual Naturaleza. Humanidad endurecida; violencia que no cesa, esperanza, vida. **UDABERRIA, M. LASARTE.** 2-3-4
- EUSKALERRI'KO LEIOA.** Noticias y comentarios. «Euskerazaintza», Academia del Euskera Popular: resumen del Acta mensual. «VALORES DE LA VEJEZ», BAGÜES, etc. IRUNA IZENARI BURUZ. Sobre el nombre de Pamplona. ¿De dónde se habrán sacado Iruina e Iruinea? E. AGORRETA. 5
- GIZENTASUNA.** Combatir la obesidad, régimen. **MEDIKU ZAARRA.** 6
- AITA SANTUA ERDI-AMERIKA'N.** El viaje más arriesgado. **JESUS GAZTANAGA.** 7-8-9-10
- BERTSOLARIA.** «Lizardi», fino y profundo; J. Cruz Zapirain y su inolvidable «Brabante'ko Jenobeba». Abril y Gernika en humo y en versos. **ERREXIL. EGI'TAR BI. «XIMELA», y...** 11
- GAUZA BITXIAK.** Curiosidades, rarezas, regocijo. Sextillizos: qué trago para una madre! Don Zorro, fotógrafo: ¿cómo verá nuestro mundo? 12
- BI EUSKALDUN GORALDUAK.** La universidad de París honra a dos vascos: D. José M.ª San Sebastián, el escritor «Latxaga», en su tercer Doctorado, y el inolvidable Yon Oñatibia (G. B.), a quien —primera vez en la historia— concede el Doctorado después de fallecido. **OIARTZUN. LEKUONA'TAR M. JAU-NARI OMENALDIK.** Recientes homenajes al «viejo» Lekuona: **ERBITI.** 13-14
- ERRIZ-ERRI.** **BAZTAN, M. IZETA:** esperanzado Concurso juvenil en euskera; **FILIPINAS,** desde Ilo-Ilo, al otro lado del mundo. **PATXI ETXEBERRIA** (83 años) evoca la patria lejana; **BAIGORRI:** malos vientos por el Norte, **ZIPRI ARBELBIDE;** **BETELU:** un año ya!, «AIZTITXO» recuerda a «Latey» (Ura zan gizona, ura!). **LIZARRA:** Primeras Comuniones en la Ikastola de Estella. 15
- KIROLAK.** Triunfos en Pelota: Bengoetxea IV-Maiz II. Torneo GRAVN. Y una foto de **MENA,** intrincada, feliz expresión del enredo de Osasuna. 16
- JUANA GARCIA ORCOYEN.** La primera mujer navarra que se hizo médico. «**ASKATASUN GAR-RATZA**». Un teatro de «Uxola» que se puede situar en cualquier parte: conciencia, represión, violencia, «amarga libertad». **ASTE.**

Gartzia Orkoien Yone andrea

LENENGO EMAKUME SENDAGILLE NAPARRA



Kanpoan bizitu arren, lenengo emakume sendagille naparrari ez zaio sorlekua aaztu.

Gaur asko dira emakume sendagilleak. Baiña... 1925'ean, zenbat ote ziren? Aipa dezagun emakume napar ospetsu au, laburki bederen.

Naparroa'ko Estenoz errixkako sendagillearen alaba au ere, Estenoz'en jaio zen 1900'gn. urtean.

Eta 1925'ean atera sendagille egiñik, txantxetan ere, bere Ikasketak egitekoan 19 «Matricula de Honor» direlakoak lortu ondoren.

Zenbait urtez irakasle izan zen Unibersidadean, Sendagintza gaietan noski. Valencia'ra ezkondu zen eta antxe egin ditu urte asko etengabeko lanean. Zaartzarora iritxi delarik ere, ez dago Naparroa'z aaztuta. Onela idatzi du Aaldundi edo Diputazio'ra:

«Nere aurtzaroa ta gatzetako urteak Naparroa'n egin nituenez, ezin zait aaztu Naparroa, urterik geienak andik kanpora bizi izan naizen arren. Jatorriz naparra naiz, erri txiki bateko sendagille baten alaba. Oso gogoan daukat gure aita zena zer-nola ibiltzen zen erriz-erri, ta etxez-etxe, bestela eziñik, zaldiz ibilli ere».

Eta orain bere sendagintza ta lanen agerpen diren zenbait agiri, batean bildurik, Naparroa'ri eskeñi dizkio. Batez ere, berak dionez, Naparroa'ko emakumeen jaso-kuntzarako lagun dezaketen itxaropenean.

«Azkatasun garratza»

Ezaguna dugu UXOLA idazlea, eta irakurleentzat ere ezaguna da. Ona emen orain idazle orren antzerki bat, gure arteko arazo ta borrokak gogoan dituela egiña. Ala ere irakurleak ez du Euskalerrri'ko izenik aurkituko.

Beste garai gogor batzuetan idatzia denez, Irlanda'ko erri-borroka eskein-

tzen du biziki ta garratz. Eta gutxienik ez, espetxeetako laztasuna.

Bein baiño geiagotan espetxean egon bear izan duen gizonak, ongi daki barne illun aietako berri. Euskalerrria ongi ezagutzen duenik ere ezin ukatu. Giro ortan sorturiko antzerkia da. Gipuzkoa'n barna zenbait erritan ikustera eman izan dutena, edo antzeztua dugu.

Azala ikusi besterik ez, zeñen dotoreki argitaratua dagoen ulertzeko. Euskalerrriko Jaurilaritza edo Gobernua lan audiak egiten ari da euskal antzerkia bizi-berritu nairik, eta aldi berean euskal antzezlariak ere trebeki gertuturik ager daitezen antzokietara.

Zorionak gure idazle UXOLA adiskideari ta zorionak orrelako aldizkaria atera dutenei.



ASTE

AZKEN ORDUKO OARRA

Gauza pozgarria ikusi nuen joan diren egunetan, «Principe de Viana» au prestatzen ari nintzeanean.

Anitz atzeratutakoak gelditu ziren Errebistak —inork ez zituen bialdu—, orain sobre aundi batean sartuta, len-bait-len asi dira bialtzen Etxeko langilleak. Bear ba'da eskuratu dituzue; euskaldun jendearenak dira: «bakoitzari, berea».

Poztu gera, alafede!

Urte askotan ikusi ez dugun la-guntza, orain —Jainkoari eskerrak— ikusten ari gera. Orain egin dena, ongi egiñik; baiñan, obeki, bere garaiean.

GARDE'TAR M.